

Naturari bizia eskaini diotenak omenduko dituzte

Aurtengo Naturaldian, abentura eta esploratzea izango dira egitarauaren barneko ardatz nagusiak

I. Urkizu

Hilabete honen amaieran hasi eta maiatza osoan zehar, erakusketez gain, hainbat hitzaldi nahiz ekin-tza izango dira herrian.

Gainera, Naturaldia-ren osagarri moduan, Errenterian eta Zarautzen ere hitzaldi bana izango da. «Natura guretzat ageriko, hurbil, interesgarri, ulergarri, edo ezinbesteko bihurtzeari bizia eskaini dioten eta eskaintzen dioten guztiak» omendu nahi izan dituzte aurtun, antolatzaileek.

↓ Naturaldia 2011

JARDUERAK

■ **Apirilak 29- Maiatzak 8.** Kultur etxeko fatxadan GKO Gale-riak eta BOX.A Arte Elkarteak jardunaldietarako egin duten kartela zintzilikatuko dute.

■ **Maiatzak 2- Maiatzak 31.** Tolosa & CO-ko dendariak euren erakusleihoetan GKO Galeriako eta BOX.A Arte elkartekoek naturaren inguruko argazkiak jarriko dituzte. Argazkilariak: Jose Antonio Abaigar, Miguel Cortes eta Josetxo Gabarain.

■ **Maiatzak 8, 12:00.** *Oria ibaiko baranda.* Zerkausian izango da, eta Gipuzkoako dantza eskole-tako dantzariak parte hartuko dute. Barrako zenbait ariketa

egingo dituzte. Aurkezlea: Kike Amonarriz.

ARANBURU JAUREGIA

■ **Apirilak 29-Maiatzak 31.** *Giza izaera eta izadia* deituriko Jose Benito Ruizen argazki erakusket-a.

HITZALDIAK

■ **Maiatzak 2, 19:30.** Topic-en, *Tolosa: naturaren istoriotxoak.* Hizlariak: Asier Hilario (geolo-

goa eta Zumaiako flyscheko zientzia koordinatzailea) eta Josu Iztueta bidaiaria. Aurkez-lea: Jokin Bildarrataz.

■ **Maiatzak 3, 19:30.** Topic-en, *Argazkia, artea eta kontserbazioa.* Hizlaria: Jose Benito Ruiz argazkilaria. Aurkezlea: Kiko Alvarez biologoa eta argazkilaria.

■ **Maiatzak 4, 19:30.** Topic-en, *Atzealdearen lilura. Nómadas del viento*-ren making off-a proiektatuko dute. Hizlariak: Jose Maria eta Miguel Morales, eta Joaquin Araujo. Aurkezlea:

Alberto Gorritiberea zine zuzen-daria.

■ **Maiatzak 5, 19:30.** Topic-en, *Félixen aztarna. El hombre y la tierra* proiektatuko dute. Hizlariak: Odile Rodriguez de la Fuente eta Jordi Sargatal. Aurkezleak: Imanol Biain.

■ **Maiatzak 6, 19:30.** Topic-en, *Inkak, momiak eta mendiak: goietako arkeologia eta zientzia dibulgazioa.* Hizlaria: Constanza Ceruti arkeologoa. Aurkezlea: Lourdes Errasti, Aranzadiko antropologiako kidea.

Iragarki laburrak